



## ALKATETZAREN DEKRETUA

**IORITZ BERRA JUARISTI, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAK**, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

### **IKUSIRIK,**

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako egonkortze-prozesuaren barnean epaimahaiak hartutako behin-betiko erabakia, hau da, hau da, hautaketa-prozesuaren kalifikazioak onartzea:

Plaza/Lanpostua: Zaldibiako Udaleko, Aramako Udaleko, Altzagako Udaleko eta Gaintzako Udaleko Gizarte langilea. OINARRIAK: 2022/12/27ko GAO.

- Bilera zenbakia: 1
- Eguna: 2024ko otsailaren 7a Lekua: Zaldibiako Udala Bertaratu direnak:
- Epaimahaiburua: Silvia Gomez Tolosa (ordezkoa)
- Idazkaria: Iñaki Arriaran Murgiondo
- Mahaikideak: Laxia Urteaga Usandizaga eta Itsaso Urretagoiena Arruabarrena.
- IVAPEko ordezkaria: Jone Herrero Azurmendi

Halaber, **ikusirik** zegokion epean ez dela alegaziorik aurkeztu, indarrean dagoen legediak ematen didan aginpidez baliaturik,

### **ERABAKI DUT**

Lehenengo: Izangaien merezimenduen balorazioa ontzat ematea

XX XXX 030K ARRIZABALAGA ETXEBERRIA, MARIA JOSE	100	puntu
XX XXX 685P UNAMUNO MARCOS, NAIARA	79,15	puntu

Bigarren.- Erabakia Zaldibiako Udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratuko da eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egin ahal izateko.

Hirugarren.- Epea igarota, behin betiko zerrenda GAO-n argitaratuko da, eta puntuaketa altuena duen izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da alkatearen dekretuz; Zaldibiako Udalaren webgunean eta iragarki taulan ere argitaratuko da.



ZALDIBIAKO  
UDALA

2022ILAK0002

Laugarren.- Ebazpena GAOn argitaratu eta hilabete bateko epean izangaiak lanpostua hartu beharko du eta 6 hilabeteko praktikaldia hasiko du.

Bosgarren.- Praktikaldia amaitu eta txostena aldekoa bada, karrerako funtzionario izendatuko da alkatearen dekretu bidez. Ebazpen hori GAOn eta baita Udalaren webgune eta iragarki taulan ere argitaratuko da.

Sinatzailea	ALKATEA IORITZ BERRA JUARISTI		
Kodea	B 24/0074	Udala	Zaldibia
URL	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA18CMS.kpYt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA18CMS.kpYt</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

